

XV. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko Epaimahaikideek -Jose Antonio Perez Gabarain, mahaiburuak, Jose Inazio Basterretxea, Allande Boutin, Mikel Irizar, Laura Mintegi, Koldo Ordozgoiti, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Julen Arangurenek- aho batez adostu dute ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; hasiberriek nahiz helduek urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen lana. Lan on ugari daudela iritzi diote, gainera, gero eta esparru, tonu eta ahots ezberdin gehiago aurki daitezke euskaraz egindako kazetaritzan.

Hau guztia arlo honetan urteetan egindako lanaren fruitua da. Sari honi izena ematen dion Rikardo Arregi langintza honetan aitzindaria izan zen. Bere bizitza laburrean egindako lan oparoari esker euskal kazetaritza modernizatze bidean jarri zuen. Berak, ondo baino hobeto baitzekien euskarak beharrezkoa zuela kalitatezko kazetaritza bat, komunikazio prestu eta modernoan oinarritutakoa.

Sari honen xedea Rikardo Arregiren oroitzapenaren itzalpean berritzaile eta eredugarri diren lanak bultzatzea da, euskal kazetaritzan gutxi izan baitira bera bezain berritzaile eta eredugarri. Tamalez, herriko kazetari eta pentsalari handi honek gazte utzi gintuen, 27 urte betetzear zegoela. Baina

ordurako, oraindik orain gaurkotasun handia duen lan bilduma mardul bezain bikaina egin zuen. Eta ispilu horretan begiratu, aurten, epaimahaiak erabaki du, Rikardo Arregi kazetaritza sariaren hurrengo edizioetarako, “kazetari berria” atalera aurkeztu ahal izateko adina 27 urtera luzatzea. Era honetan, hedabideetan hasi berriak diren profesionalak aukera egokiagoa eskainiko zaie eta sari honen helburuei jarraituz, epaimahaiak, kazetarien lana aitortu eta suspertuko du Rikardo Arregiren izena eta izana aintzat hartuz.

Gatozen baina, sariaren ohiko lanetara:

2.- Hurrengo hau da epaimahai honen erabakia:

* 2.1.- “*Kazetari berria*” ataleko saria, 2.400,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 25 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Epaimahaiak pozik egoteko arrazoiak dituela edierazi nahi du, alde batetik aurkeztu diren lanak maila handikoak izan direlako, eta bestetik aurten jasotako lan kopuruak gora egin duelako nabarmen. Jakina den legez, atal honetan nahitaezkoa da autoreek beren lanak aurkeztea sarian parte hartzeko; eta sariduna bakarra den arren, aurkeztutakoen artean asko dira saria merezi izateko moduko lanak. Kalitatea eta ugaritasuna eskutik etorri dira aurtengoan eta alde horretatik, aipatzekoa da sarira 27 lan aurkeztu direla, azken urte hauetako kopururik handiena. Beraz, aurtengo mailari eusteko, hasten ari diren kazetariak, bada, jaso bezate epaimahaiaren gonbitea datorren ediziorako.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako epaimahaiaren iritziz:

- Darabilen mediora, hau da, irratira, ondo egokitzen den lan sorta da, txukun idatzia eta ondo antolatua.
- Hautatzen dituen gaiak aberastasun handikoak dira, anitzak eta ezberdinak eta beti gaurkotasun handikoak.
- Teknika zaila lantzen du, ez baita erraza irratirako idaztea eta idatzitakoa modu naturalean irakurtzea. Eta idazteko dohaina duela aski frogatzeaz gain, irratiak dituen berezitasunak, dikzioa eta ahozketasuna menperatzen dituela erakutsi du.
- Gaiak ondo aukeratzeaz gain, diskurtsoa antolatzeko eta egituratzeko gaitasun handia du, horretarako hizkuntza maisuki erabiliz, kronikaren amaiera arte entzulearen arreta bereganatzea lortzen duelarik.
- Bertsolaritza eta kazetaritza uztartzen ditu. Bertsolaritzatik testuen freskotasuna eta erakargarritasuna hartzen ditu eta kazetaritzatik, kazetari orok ezinbestekoak dituen seriotasun eta sinesgarritasuna.
- Gaiari heldzerakoan ez du konpromisoa saihesten, eta nabarmentzekoa da kontakizunean busti eta inplikatu egiten dela, ironia fina eta umore ikutua erantsiz.

+ *Sariduna: Amets Arzallus jauna*

+ *Saritutako lana: Euskadi Irratiko Goizean Behin saioan*

2002ko ekainetik 2003ko maiatzera bitartean egindako kolaborazioak.

* **2.2.- XV. Rikardo Arregi Kazetaritza sariko “sari nagusia”,** diplomaz, 6.010,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurrak

hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Saritutako lana zein den argitu aurretik, aipamen berezi bat egin nahiko luke epaimahaiak. Ondorengo lanak sari nagusia eraman ez duen arren epaimahaiak aitorpena merezi duela irizten du, ondorengo arrazoiengatik:

- Aurten euskaraz egindako kazetaritzaren emaitzarik bitxienetakoa baita eta alde horretatik guztiz aipagarria. Pil-pilean zegoen telebista bateko izar atzerritar batek Euskal Herriarekin izan dituen hartu emanak aurkitu ditu, erreportajea dokumentazio lan mardul batekin eta protagonistak eskusiban egindako elkarrizketa batekin osatuz.
- Berriak oihartzun handia izan du, eta erdal hedabideek euskarazko hedabide batek kaleratutako barria jasotzeaz gain, jatorrizko iturrietara, hau da, euskarazkoetara jo behar izan dute informazio bila. Eta hau ez da sarri gertatzen.

+ *Aipamen berezia:* **Leire Kortabarria andrea.**

+ *Aipatutako lana:* *Goienkarian 2003ko urterilaren 17an argitaratutako Billy Petersen. “CSI telasailekoa Oñatin bizi izan zen” artikulua.*

Goazen baina XV. edizio honetako “sari Nagusia” norentzat den argitzera. Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Kalitate handiko elkarrizketak egiten dituzte, irakurlearen arreta bereganatzea lortzen dute, horretarako elkarrizketa bera trebetasun handiz gidatu eta egituratuz.
- Galderak tajuz prestatzen dituzte, horretarako dokumentazio lan mardula aurretik eginez, eta elkarrizketatuari buruzko irudi poliedrikoa emanez.
- Elkarrizketa hauetan albistea eta azterketa uztartu egiten dituzte, erreportajerako denon ahotan dauden aurpegiak aukeratu eta aktualitateko galderak eginez.
- Elkarrizketa hauetan ez da pertsonaiaren azaleko azterketa soila egiten, elkarrizketa ikuspuntu sakon batetik bideratzen dute pertsonaia bera aberastuz.
- Pertsona eta pertsonaia uztartzen dira, elkarrizketatua ardatz eta bihotz delarik.
- Nahiz eta jakin elkarrizketa batzuk ez direla euskaraz burutu – elkarrizketatua ez delako euskalduna–, zaila da igartzea itzulpena dela, hizkuntza oso modu naturalean erabiltzen baitute.
- Erreportaje hauetako lan grafikoa ere aipatzeko modukoa da. Elkarrizketa, zenbaitetan hunkigarriak izatera iristen diren kalitate handiko argazkiez atontzen baitute.
- Elkarrizketa Xabier Mendiluzek hezurmamitzen dituen bertso bikainekin eta pertsonaiari buruzko fitxa labur bezain argigarri batekin janzten dute. Horrela, elkarrizketatuari buruzko irudi gertuago eta osoago bat eskaintzen diote irakurleari.

+ *Sariduna*: **Estitxu Eizagirre eta Ixiar Eizagirre andreak.**

+ *Saritutako lana: Argia aldizkarian 2002ko ekainetik 2003ko maiatzera bitartean egindako elkarrizketak.*

3.- Aurten ere Ohorezko Aipamenaren aukeraz baliatzea erabaki du epaimahaiak.

Oso egoera ezberdinetan baina beti baldintza zailetan euskal gizarteak euskarazko egunkariak sortzeko kemena eta indarra izan du. Hiru izan dira Berria egunkaria jaio arte euskara hutsean izan ditugun egunkariak.



Aurtengo ohorezko aipamena, beraz, historian zehar euskara hutsean kaleratu diren egunkariei egiten zaie, eta hauen bitartez egunkari hauek sortzeko kemena eta gaitasuna izan duen euskal gizarte osoari.

Ohorezko aipamen honen helburua Egunkari hauek egindako lana aipatzea ez ezik egitasmo hauek bultzatu eta aurrera atera dituen jende multzo zabala omentzea da.

Bide batez, errekonozimendu honekin jaio berri den Berria egunkariari ongi etorria ematen diogu, gaur, hemen, aipatzen ditugun egunkariak egindako lanaren itzalean euskarazko egunkarigintzaren lekukoa hartu duelako.

XV. edizioko ohorezko aipamena, beraz, Eguna, Egunkaria, eta Eguneroko ordezkariak jasoko dute. Egunaren izenean izenean Augustin Zubikariren alabak, Edurne Zubikarik; Egunkariaren izenean Joan Mari

Torrealdai**k**; eta Eguneroren izenean Eneko Bidegainek. Andoingo Alkatea, Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren eskutik Xabier Lakak egindako kaxa oroigarria eta Diploma emango zaizkie.

Honaino, bada, *XV. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hiruko ekainaren hogeita zortzian.

José Antonio Perez Gabarain

Jose Inazio Basterretxea

Allande Boutin

Laura Mintegi

Mikel Irizar

Koldo Ordozgoiti

Julen Aranguren